



MARIAREN BIHOTZA KOMENTUA
B MAILA
NAFARROA HIRIBIDEA 01-03
NAFARROA HIRIBIDEA 01-03 ETA ZEMORIYA 01

Egilea eta data: Ramon Cortazar, 1923/1926.
Deskribapena

Komentuz, elizaz eta Mariaren Bihotz Garbiaren Misiolarien eskolez osatutako multzoa. Itxura klasikoa duen arren arkitektura modernoaren bezperetan eraikita dago. Lehen proiektua 1923koa izan arren, Cortazar berak egindako zuzenketa aintzat hartuz 1926. urtean eraiki zen. Etxadi burua osatzen du hiru fatxadekin, eta mehelin horma bakarra du. Horma honekiko elkarzut banaketaren ardatza dago, orokorrean, eliza inguratzen duten gelez eta barruko patio batez osatua. Elizaren burua mehelinetik hurbil dago, eta elizaren oinak Nafarroa hiribideko kantoian kokatutako dorrearen azpiko sarreran daude. San Franzisko kalearen eta Zurriolaren arteko desnibelean dagoen ebakidura elizarekin salbatzen da. Elizak hiru nabez osatutako basilika oinplanoa du, gurutzadurarik gabe eta absidearekin. Alboek altuera bakarra dute, eta galeriako eta klaristorioko ebakidura dute. Zutabeak harrizkoak dira, gurutze bobedak ditu hormigoizko nerbioekin, eta koroa ere hormigoizkoa da. 1939an Ramon Cortazarrek berak aldatu zuen dorrea proiektu berri bat idatziz. Beranduago, Pablo Zabalok zenbait eraldaketa egiteko ardura hartu zuen. Lehenengoa 1949an, elizaren alboetako nabeen gainean jasodura bat proiektatu zuenean, terraza lauen ordez teilazko estalki inklinatuekin. 1954an sarrerako ateondoa eta portada eraberritu zituen, eta 1956an elizaren sarreraren alboetan bi eskailera gehitu zituen.

Babes erregimena

- 1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen B babes mailan sartzearekin loturikoa.
- 2.- Berariazko erregimena.
 - A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak: leihoetako arotzeriak.
 - B.- Elementu iraunkorrak: kanpotik eta barrutik harlanduzko elementuak eta apaingarri kareberrituak.
 - C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: Elizaren nabea jatorrizko arkitektura elementu guztiekin kontserbatuko da, aldaketarik gabe.
 - D.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.